

ONDARE INTERES HANDIKO ONDASUNAK FORU ALDUNDIARI LAGATZEKO ESKAINTZA

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Gordailuari edo foru museo bati ondare interesa duten objektuak (interes etnografikoa edo artistikoa) inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe emateko eskaintza.

Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DPTUA.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Gordailua eta Museoen Zerbitzua

Nori zuzenduta

Gipuzkoako Lurralde Historikorako interesgarria den objektu edo ondare-bildumaren bat duen edozein pertsona fisiko edo juridiko.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Foru Aldundiari ondare-intereseko ondasunak emateko inprimakia](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabide inprimakia beteta

Eskaintzen den bildumaren piezak zehatz-mehatz adierazten dituen dokumentazioa, eta Gipuzkoarako duen ondare garrantzia.

Bildumaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentua edo, bestela, haren titulartasunaren erantzukizunpeko adierazpena. Erantzukizunpeko adierazpena notarioaren aurrean formalizatuko da, baldin eta laga nahi diren ondasunak 2.000 eurotik gorakoak badira.

Hala badagokio, lagapenaren baldintzak.

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>
- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/inicio>

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

Zuzeneko arretarako bulegoak

Pertsona fisikoak bakarrik:

Arreta Zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa plaza z.g., 20004 Donostia.

Orduetgia: Astelehenetik ostegunera, 08:30-18:30. Ostiraletan, 8:30-14:30. Abuztuan, astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30.

Telefonoa: 943 11 21 11

ARAUDIA

[Otsailaren 11ko 2/2019 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen.](#)
[8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzkoa \(GAO, 1996ko uztailaren 12koa\).](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

- Eskaera erregistratzea, eta hala badagokio, zuzentzea.

- Gordailua eta Museoen Zerbitzura bidaltzea, azterketa eta balorazio teknikoa egiteko.
- Kanpoko tasazio ekonomikoa egitea
- Departamentuko titularrak onartzeko edo ukatzeko proposamena eta dohaintza agiria egitea.
- Proposamena ondareari buruzko eskumenak dituen departamentuari bidaltzea.
- En su caso, aceptación por el Consejo de Gobierno foral.
- Departamentuko titularrak kontratua sinatzea (Diputatuen Kontseiluak eskuordetuta).
- Idazkaritza Teknikoak 182 eredia prestatzea, Ogasun eta Finantza Departamentuari bidaltzeko.
- Ziurtagiria igortzea emaileari, mezenasgoaren ondoriozko zerga salbuespenak izateko.
- Ondasunak Gordailuan entregatzea.

OHARRAK:

Jarauntsiak inbentario onuraren arabera onartu direla ulertuko da beti.

Kostu bidezko edo baldintzapeko dohaintzetan, ondasunak onartuko dira soilik baldin eta alde aurretik formalizatuko den espedientean egiaztatzen bada ezarritako kargaren balioak ez duela gainditzen jasotzen den ondasunaren balioa.